# Egoera ekonomikoa eta Merkatuak
# ASTEKO LABURPENA

2018ko irailaren 24tik 28rako astea

---

## ➢ INGURU MAKROA:

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA.
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI…

## ➢ ASTE HONETAN MERKATUETAN

# INGURU MAKROA

kutxabank gestión

# ASTEKO DATUEN PODIUMA

## EUROGUNEA: IFO




### Datuaren analisia

emaniako IFOa apur bat jaitsi da irailean, 103,9tik 103,7ra. Abuztuko datuak finkatu egin dira ›rrela, eta espero zena baino 5 hamarren gorago mantendu da. Espektatiben osagaiak zein aingo egoerarenak ia-ia aurreko mailari eutsi diote. Enpresen egoeraren IFO metatuak hiruhileko ıtez bestekoa hobetu du, 103,1eraino, eta apiriletik izan duen maila gorenera igo da. Sektoreka, ›bekuntza arinak eman dira sektore gehienetan, manufakturena kenduta, 24,3tik 23,5era jaitsi ıita. Manufakturen sektorean, enpresek oraingo egoera nabarmen okerrago baloratzearen ıdorioz eman da jaitsiera, nahiz eta perspektibak otsailean izandako maximoetara igo diren. ıtozen hiletan ekoizpena handitzea aurreikusten ari dira manufakturen enpresak.

### Adierazlearen azalpena

ıpresa-giroaren Indize alemaniarra (IFO) adierazle garrantzitsua da, inbertitzaileek Alemaniako 'duera ekonomikoan duten konfiantza-maila neurtzen baitu. IFO Institutuak argitaratzen du hilero. )00 exekutibori baino gehiagori egindako inkesta batean bildutako datuetan oinarritzen da, gaur ungo eta etorkizuneko ekonomiaren egoerari buruzko galderekin. IFO indizeak lotura oso estua uka Industria Ekoizpenarekin, eta, horrenbestez, BPGd-aren bilakaerarekin (lehenago ɡitaratzen denez, aurreikus daiteke).

kutxabank gestión

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

## EUROGUNEA: KPI




### Datuaren analisia

uroguneko KPIa % 2,1eraino igo zen irailean, iragan abuztuan baino hamarren bat gehiago, aurrez jindako kalkuluen arabera. Energiaren prezioen igoerak eta elikagaien, alkoholaren eta bakoaren garestitzea dago igoera txiki horren atzean. Hala ere, azpiko inflazioak, energiaren zein kagai ez prozesatuen kostua kanpo uzten dituenak, behera egin zuen ustekabean, iragan hileko 1,0etik % 0,9ra. Espainiako KPIaren adierazle aurreratuak % 0,2 egin zuen gora aurreko hilarekin deratuta, 2017ko irailean bezala. Frantzian, adierazleak % 0,2 egin zuen atzera, aurreko hilean % 5 aurrera egin ondoren. Alemanian, urte arteko inflazioa % 2,2ra iritsi zen, azken 7 urteotako oerarik handiena.

### Adierazlearen azalpena

Pla hilero prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen uzten oinarrizko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, rosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez ste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak rrialdearen inflazioa zehaztuko du.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### ERRESUMA BATUA: BIGARREN HIRUHILEKOKO BEHIN BETIKO BPGd-a




### Datuaren analisia

ɔiriletik ekainera, Britainia Handiko ekonomia orokorra hiruhileko % 0,4 igoko zela zioen ɪrreikuspena baieztatu zuen Estatistika Nazionalen Bulegoak, eta bigarren hiruhilekoko urteko ɪzkunde-tasa aurreikusitako % 1,3tik % 1,2ra jaitsi zuen. 2018ko lehen erdian, Britainiako ɪzkunde ekonomikoa 2011ko bigarren erditik eman den sei hileko epeko ahulena izan zen.

### Adierazlearen azalpena

ɪtatistiken Bulego Nazionalak argitaratzen du barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten oizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. resuma Batuak ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta nbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalean oitzitakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

# INGURU MAKROA

kutxabank gestión

# ASTEKO DATUEN PODIUMA

## AEB: FEDen BILERA




### Datuaren analisia

ɿreserba Federalak 25 oinarrizko puntu igo zituen interes-tasak, % 2 eta % 2,25aren arteko mailara, a aldaketarik gabe utzi zituen ondorengo igoeren erritmoa, espero zen moduan. Diruaren doitze nailakatuaren» programaren barruan, Estatu Batuetako ekonomiaren osasun onaren aurrean, )18an eman den hirugarren igoera da, eta diruaren prezioa azken hamarkadako mailarik gorenean ›katu du. Bestalde, Fed-ek Estatu Batuetako hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenak hobetu eta 3,1era igo zituen urte honetarako, ekainean kalkulatutako % 2,8aren ondoren. Inflazioaren akaeraren pronostikoa, aldiz, % 2,1ean utzi zuen. Langabezia-tasa, azkenik, erabateko enplegutik ɜrtu egongo da, urte honen amaierarako aurreikusitako % 3,7arekin, ekainean aurreikusitakoa ıino hamarren bat gorago, eta % 3,5arekin 2019rako.

### Adierazlearen azalpena

ɛderal Reserve System (FED) Estatu Batuetako banku-sistema zentrala da. Herrialdeko diru-litikako erabakiak hartzea, banku-erakundeak ikuskatu eta arautzea, finantza-sistemaren onkortasuna mantentzea eta gordailu-erakundeei, Estatu Batuetako gobernuari eta atzerriko ɜkunde ofizialei finantza-zerbitzuak eskaintzea dira bere egitekoak. Bere diru-politikaren bitartez, plegu erabatekoa, prezioen eraginkortasuna (inflazioa eta deflazioaren prebentzioa barne) eta e luzean interes-tasak moderatzea dira lortu nahi dituen helburuak.

kutxabank gestión

# ASTEKO DATUEN PODIUMA

## ᐱEB: BIGARREN HIRUHILEKOKO BEHIN BETIKO BPGd-a




### Datuaren analisia

ıalisi Ekonomikoen Bulegoak egindako hirugarren eta azken berrikuspenaren arabera, BPGd-a % 2 hazi zen bigarren hiruhilekoan, % 4,2koa izan zen bigarren argitalpenaren bidetik eta lehenengo ıkurketa baino hamarren bat gorago (% 4,1). Aurreikuspenak bete dituen datu hau lau urtean eman ən hazkunderik handiena ekarri du. Estatu Batuetako ekonomia % 3,2 hazi zen lehen seihilekoan, a urte hasieran ia izoztu ondoren, kontsumitzailearen gastua sendotu zuen Donald Trump esidentearen gobernuaren zergen murrizketa-sortak bigarren hiruhilekoko hazkundea bultzatu ıen.

### Adierazlearen azalpena

ırne produktu gordina (BPGd) Analisi Ekonomikoen Bulegoak kaleratzen duen datua da. Herrialde ten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. ;tatu Batuek ekoizten dituzten azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta nbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalean oitzitakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### JAPONIA: INDUSTRIA-EKOIZPENA




#### Datuaren analisia

u hilabeteren ondoren, industria-ekoizpenak gora egin zuen abuztuan, eurite eta uholde handien tean, zenbait fabrika berriro martxan jarri ondoren. Aurreko hilarekin alderatuta, fabriken oizpenak % 0,7 egin zuen gora abuztuan (% 1,5eko igoera aurreikusita zegoen), uztailean % 0,2 hera egin ondoren. Etorkizunean industria-ekoizpenak gorantz jarraitu beharko luke, Japoniako oduktuen eskaria sendoa delako oraindik, hala etxean bertan nola nazioartean, baina Japoniak togintzako ekoizpen gehiago Estatu Batuetara eramateko aukerak jaitsiera arriskua dakar.

#### Adierazlearen azalpena

dustria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den presa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-ktorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegien erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia ten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

kutxabank gestión

# KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI…

| Data | Eremua | Adierazlea | Aurreik. |
|---|---|---|---|
| 10/01 | Japonia | PMI Nikkei fab Japonia | -- |
| 10/01 | Alemania | Urte arteko xehekako salmentak | % 1,6 |
| 10/01 | Espainia | Urte arteko xehekako salmentak | -- |
| 10/01 | Espainia | Espainiako Markit fabrikazioaren PMIa | 52.6 |
| 10/01 | Frantzia | Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa | 52.5 |
| 10/01 | Alemania | Alemaniako Markit/BME fabrikazioaren PMIa | 53.7 |
| 10/01 | Eurogunea | Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa | 53.3 |
| 10/01 | Erresuma Batua | Markit, RU SAren PMI fabrikazioa | 52.5 |
| 10/01 | Eurogunea | Langabezia-tasa | % 8.1 |
| 10/01 | Estatu Batuak | Markit AEB fabrikazioa PMI | -- |
| 10/01 | Estatu Batuak | ISM manufaktura-indizea | 60.0 |
| 10/03 | Japonia | PMI Nikkei zerbitzuak Japonia | -- |
| 10/03 | Japonia | PMI Nikkey composite Japonia | -- |
| 10/03 | Espainia | Markit PMI zerbitzuak Espainia | 52.9 |
| 10/03 | Espainia | Markit PMI Composite Espainia | 53.0 |
| 10/03 | Frantzia | Markit Frantzia Zerbitzuak PMI | 54.3 |
| 10/03 | Frantzia | Markit PMI Composite Frantzia | 53.6 |
| 10/03 | Alemania | Markit Alemania Zerbitzuak PMI | 56.5 |
| 10/03 | Alemania | Markit/BME Alemania Composite PMI | 55.3 |
| 10/03 | Eurogunea | Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI | 54.7 |
| 10/03 | Eurogunea | Markit PMI Composite Eurogunea | 54.2 |
| 10/03 | Erresuma Batua | Markit/CIPS RU Zerbitzuak PMI | 54.0 |
| 10/03 | Erresuma Batua | Markit/CIPS RU Composite PMI | 53.9 |
| 10/03 | Eurogunea | Urte arteko xehekako salmentak | % 1,7 |
| 10/03 | Estatu Batuak | ADP Enplegu aldaketa | 185k |
| 10/03 | Estatu Batuak | Markit AEB Zerbitzuak PMI | -- |
| 10/03 | Estatu Batuak | Markit PMI Composite AEB | -- |
| 10/04 | Estatu Batuak | Hasierako langabezia-eskaerak | 210k |
| 10/04 | Estatu Batuak | Ondasun iraunkorren aginduak | -- |
| 10/05 | Frantzia | Balantza komertziala | -4500m |
| 10/05 | Espainia | Hileko industria-ekoizpena | % 0.8 |
| 10/05 | Estatu Batuak | Balantza komertziala | -$52.2b |
| 10/05 | Estatu Batuak | Langabezia-tasa | % 3.8 |

# ASTE HONETAN MERKATUETAN

kutxabank gestión

## JRTSA:

ılantze negatiboa Europako eta Estatu Batuetako rtsetarako, baina Ftse ingelesa edo Nasdaq amerikarraren lbuespenekin. Portaera ona Asiako errenta aldakorrean. kkeiak 27 urtean izandako mailarik altuenera iritsi da, naren ahuldadea lagun. Italiako aurrekontuak eta Feden erak erakarri zuten inbertsiogileen arreta, nahiz eta gerra mertzialak eta NBEren Batzar Nagusiak ere piztu zuten eta. Italian, aurrekontuen negoziazioen ondoren akordioa ldu zen, eta defizita BPGd-aren % 2,4ra igotzen zuten ntuak aurkeztu zituen gobernu italiarrak. Datu horiek Tria nistroaren % 1,6ko defizit helburua albo batera utzi zuten a aurreko gobernuak Bruselarekin zituen konpromisoak ere itik behera aldatu zituen (% 0,8 2019an eta oreka 2020an). liako erronkak batez ere Mib italiarrari eragin zion (-% 77), eta, ondoren, Ibex 35ari (-% 2,10). Feden bilera, berriz, rpresarik gabe, burtsetan eragin handirik izan gabe, erkatuak aurretik deskontatutako tasen 25 op-ko berarekin eta ondorengo igoeren erritmoaren inguruko laketarik gabe amaitu zen. Esparru komertzialean, ntsioak bere horretan mantendu ziren. Iragan astelehenean rtu ziren indarrean Estatu Batuek Txinako produktuei ritako 200.000 milioi dolarreko mugasariak. Gainera, BEren Batzarrean, Trump alde anitzeko akordioen kontra ertu zen, nahiko modu oldarkorrean.

| INDIZEAK | PREZIOA | % Aldaketa % Astean | Ald. 2018 |
|---|---|---|---|
| **MSCI WORLD (Eur)** | 192,01 | 0,52 | 7,34 |
| **IBEX 35** | 9.389,20 | -2,10 | -6,52 |
| **DJ EURO STOXX 50** | 3.399,20 | -0,92 | -2,99 |
| DJ STOXX 50 | 3.067,94 | 0,02 | -3,46 |
| FTSE | 7.510,20 | 0,27 | -2,31 |
| **S&P 500** | 2.913,98 | -0,54 | 8,99 |
| Dow Jones | 26.458,31 | -1,07 | 7,04 |
| NASDAQ | 8.046,35 | 0,74 | 16,56 |
| **NIKKEI 225** | 24.120,04 | 1,05 | 5,95 |
| MSCI EMERGENTES (Eu | 354,35 | 0,91 | -6,48 |
| MEXBOL | 49.504,16 | 0,32 | 0,30 |
| BOVESPA | 79.342,42 | -0,13 | 3,85 |
| SHANGHAI | 2.954,75 | 0,85 | -14,69 |
| Errusia Rts Mosku | 1.192,04 | 3,70 | 3,26 |

## RRENTA FINKOA:

ıtearen hasieran, Draghik agerraldia egin zuen Europako arlamentuan, eta azpiko KPIak igoera sendoa izatea ırreikusten duela esan zuen. Horren ondorioz, Alemaniako urterako tasa azken 4 hileotako maximoetara igo zen. ala ere, Italia eta EDBren arteko tentsioek gora egin zuten rriro, Italiak aurrekontuen akordioa itxi ondoren. Horren dorioz, arrisku-prima italiarra 280 op-etara iritsi zen, eta mar urterako bonua, aldiz, % 3tik gora. Bere homologo painiarrean ez zuen eraginik izan, eta astea berdinduta naitu zuen. Alemania izan zen aterpea. Bere tasek behera in zuten, eta aste hasieran izandako igoera ezerezean ratu zen.

| Gobernuen tasak 2018 | Maila | Aldaketa Astean | Ald. |
|---|---|---|---|
| ALEMANIA 2 URTE | -0,52 | 0,01 | 0,10 |
| ESPAINIA 2 URTE | -0,19 | 0,04 | 0,16 |
| AEB 2 URTE | 2,82 | 0,02 | 0,94 |
| ALEMANIA 10 URTE | 0,47 | 0,01 | 0,04 |
| ESPAINIA 10 URTE | 1,50 | 0,00 | -0,07 |
| AEB 10 URTE | 3,06 | 0,00 | 0,66 |
| ALEMANIA 30 URTE | 1,08 | -0,04 | -0,19 |
| ESPAINIA 30 URTE | 2,58 | -0,03 | -0,27 |
| AEB 30 URTE | 3,21 | 0,01 | 0,47 |
| **Kreditu-spreada (op)** | | | |
| MARKIT ITRX EUROPE 12/23 | 68,74 | 0,53 | 23,82 |

## BISAK/LEHENGAIAK:

liako zorpetze-mailak sortzen dituen beldurrek dibisa munitarioa zigortu zuten, eta 1,16 $-etara egin zuen zera, Euroguneko KPIaren igoera apala ezagutzera eman n arren. Dolarrak gogor eutsi zion, ekonomia tatubatuarraren baikortasunaren laguntzarekin. Brexitaren juruko negoziazioak enkistatu ziren bitartean, liberak lioa irabazi zuen euroaren aurrean. Lehengaietan, trolioaren prezioa 4 urteotako maximoetara igo zen, aroan indarrean sartu eta petrolio gordinaren eskaintza ırriztuko duten Iranen aurkako zigorrak indarrean sartu rretik.

| Dibisak | Maila | %Aldaketa Astean | % Ald 2018 |
|---|---|---|---|
| Dolarra / Euroa | 1,16 | -1,23 | -3,34 |
| Yena / Euroa | 131,90 | 0,17 | -2,47 |
| Libera / Euroa | 0,89 | -0,81 | 0,32 |

| Lehengaiak 2018 | Maila | %Aldaketa Astean | % Ald |
|---|---|---|---|
| Petrolioa (Brendt) | 82,95 | 6,11 | 24,14 |
| Urrea | 1.192,50 | -0,54 | -8,48 |

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.